

ikasmina:

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza osoko ikaskuntzari
buruzko dokumentuak

Pertsonen parte hartzea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan Gipuzkoan

51. dokumentua

2017ko martxoa

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Oreko Departamentua
Departamento de Promoción Económica,
Medio Rural y Equilibrio Territorial

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Ikasten dutenak	4
2.1. Partaidetza bizi osoko ikaskuntzan.....	4
2.2. Ikaskuntza, adina eta prestakuntza	6
2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko harremana	8
3. Nork ikasten dute?	9
3.1. Ikasten dutenak	9
3.2. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak	11
3.3. Zergatik ez dute ikasten?	13

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak pertsonen aberastasun eta ongizate iraunkorra sortzea bermatzen duen garapen-ereduaren alde egiten du. Testuinguru honetan, oso garrantzitsua da pertsonak gaituko dituzten ikaskuntza-dinamiken garapena eredu horrekin koherentea izatea eta pertsonen, erakundeen eta lurraldea/gizartearen arteko konpromisoa sustatzea.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentuaren ustez, pertsonen ikaskuntza da ardatz nagusia Gipuzkoako gizartearen aurrerabidean, pertsonen talentuaren garapenean eta herritartasun aktibo eta parte-hartzailean.

Bizitza osoko ikaskuntzak eguneroko bizitzan pertsonak egiten dituzten jarduera guztiak biltzen ditu. Jarduera horiek bizitzako alor guztietan ezagutzak, jarrerak eta kualifikazioak hobetzera zuzenduta daude: alor pertsonalean, zibikoan, sozialean edo profesionalean. Ondorioz, bizitza osoko ikaskuntzak erakundeetan talentua mantentzearen eta jakin-minari eta ezagutzari pertsonen bizitzako atal eta une bakoitza zabaltzearen alde egiten du.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du; hori urteko kontsulta batean babesten da (urteko lehen hiruhilekoa). Dokumentuak emaitza orokorrak aurkezten ditu; pertsonen arlo garrantzitsuak kokatzen ditu 2017ko ikaskuntzako jarduerekin lotuta.


2. Ikasten dutenak

2.1. Partaidetza bizi osoko ikaskuntzan

Gipuzkoako hamar herritar heldutatik lauk ikasi egiten du

Gipuzkoako biztanleria helduaren artean (25-74 urte) bizitza osoko ikaskuntza jardueretan¹ parte hartzea % 40,7n kokatzen da, 2016koaren antzeko datua (% 40,1).

1. grafikoa Ikasten duten pertsonak, sexuaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

¹ Bizitza osoko ikaskuntzak heziketako titulu ofizialak lortzea xede duten jarduerak (ikaskuntza formala) barne hartzen ditu, baita titulu ofizialik eskuratu gabe (ikaskuntza ez-formala) modu antolatuan eta iraunkorrean gauzatzen direnak ere.

Emakumeen arteko parte-hartzeak bilakaera hobea erakusten du

Atxikitako grafikoan ikus daitekeen moduan, gizonek ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzea emakumeena baino zertxobait hobea da. Zehazki, Gipuzkoako gizon helduen % 42,8k adierazi du azken urtean ikaskuntzan parte hartu duela; emakumeen % 38,7k adierazi du hori.

2016an eta 2017an ikaskuntzan gizonek emakumeek baino parte hartze handiagoa izan badute ere, emakumeak dira bilakaera handiena erakutsi dutenak, 2016rekiko parte-hartzea ugartu dutenak % 1,3ko tasan; aldiz, gizonen tasa mantendu egin da.

Azken urtean landutako ikaskuntzaren tipologiari dagokionez, ikaskuntza ez formala da oraindik ere ikasteko modu nagusia; hala ere, ikaskuntza formalean parte-hartzeak gora egiten du gizonen (% 9,2tik % 10,1era 2017an) eta emakumeen artean (% 7,1etik % 8,2ra 2017an).

Azkenik, aipatu beharrekoa da gizonen eta emakumeen taldean ikaskuntza ez formaleko ikaskuntza-jardueretan parte hartzeak bilakaera desberdina duela (+0,7 pp eta -0,5 pp), baina adierazgarria ez den zenbatekoan.

1. taula Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza motaren eta sexuaren arabera

	2016	2017
Ikasten duten emakumeak	37,4	38,7
Ikaskuntza formala	7,1	8,2
Ikaskuntza ez formala	34,0	33,5
Ikasten duten gizonak	42,8	42,8
Ikaskuntza formala	9,2	10,1
Ikaskuntza ez formala	36,4	37,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.


2.2. Ikaskuntza, adina eta prestakuntza

Ikaskuntzako parte-hartzea handiagoa da pertsona gazteenen artean

Biztanleria helduak ikaskuntza-jardueretan duen parte-hartzea nabarmen murrizten da pertsonen adinak gora egin ahala. Hala:

- Ikaskuntzan parte hartzeak biztanleriaren % 50 gainditzen du 54 urte arteko pertsonen artean. Horrela, Gipuzkoako 25 eta 34 urte arteko pertsonen erdiak baino gehiagok (% 51,5) ikasten du; kopurua biztanleriaren % 56,5ean kokatzen da 35 eta 44 urte arteko pertsonen artean eta % 50an 45 eta 54 urte arteko pertsonen artean.
- Parte-hartze tasa horiek behera egiten dute adinez nagusiagoak diren segmentuetan: hain zuzen 55 eta 64 urte arteko pertsonen % 27,7k ikasten du eta adinez nagusienak diren (65 eta 74 urte artean) pertsonen % 11,7k soilik ikasten du.
- Talde gazteenen artean eta 65 urte baino gehiagoko herritarren artean, ikaskuntzari dagokionez, partaidetza-tasan 40 puntu baino gehiagoko aldea dago.

2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, adin taldearen arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.


Herritarrek lortutako gehieneko ikasketa maila ikasten jarraitzeko behin betiko ezaugarria da

Azken urteetan jakinarazi den moduan, herritarrek zenbat eta hezkuntza maila altuagoa izan, ikaskuntza-jardueretako partaidetza ere orduan eta handiagoa izango da. Hala:

Gipuzkoan unibertsitateko ikasketak dituzten hamar pertsona heldutatik seik azken hamabi hilabeteetan ikaskuntzako jardueraren batean hartu dute parte. Nabarmendu beharrekoa da aintzat hartutako hiru hezkuntza mailako parte-hartze tasarik altuena duen taldea den arren, 2016rekin alderatuta behera egin duen bakarra dela (4,9 puntu).

- Ikaskuntzan, azken urtean zehar, parte-hartzeak % 38,3 egin du behera bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan; talde horrek 1,9 puntu egin du gora 2016ko datuarekin alderatuta.
- Azkenik, lehen mailako ikasketak dituzten bost pertsonatik batek baino zertxobait gehiagok adierazi du ikaskuntza-jardueraren bat landu duela azken hamabi hilabeteetan; azken urtean igoyerarik handiena erregistratu duen taldea izan da (+10,1 puntu).

3. grafikoa Ikasten duten pertsonak, lortutako ikasketa mailaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.



2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko harremana

Ordaindutako enplegua duten biztanleria helduaren erdiak ikaskuntza-jardueraren batean hartu du parte azken urtean

Azken urteetan gertatu denaren arabera, ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea handiagoa da pertsona aktiboen artean (ordaindutako enplegua dutenak eta langabetuak).

Hori dela eta, ordaindutako enplegua² duen bi pertsonatik batek (% 50,4) eta langabezia-egoeran dauden pertsonen ia erdiek (% 45,7) ikaskuntza-jardueretan hartu dute parte azken urtean. Bi kasuetan, Gipuzkoako gizartearen batez bestekoa gainditzen da.

Bestalde, ikaskuntza-jarduerak egiteak behera egin du erretiroa hartutakoen eta ordaindutako lan-merkatuan txertatu gabekoen artean: erretiroa hartutako pertsonen % 14,5ek (% 13,3k duela urtebete) eta ordaindutako lan-merkatuan txertatu gabeko pertsonen % 6k soilik.

2. taula Ikasten duten pertsonak, lan-merkatuarekiko harremanaren arabera

	%	
	2016	2017
Enpleguarekin	51,5	50,4
Langabezian	41,9	45,7
Erretiratua	13,3	14,5
Lan merkatuan barneratu gabe	10,3	6,0
Guztira	40,1	40,7

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.

² Eskuragarri dauden datuen arabera (Fundae), hobaritutako prestakuntza-jardueretan lanean ari diren (Gizarte Segurantzak) pertsonen parte-hartzea enpleguaren % 23a da Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez. Kopuru hori "prestakuntza-lurzorua" erreferentzia izango litzateke eta horri prestakuntza gehitu behar zaio prozedura honetatik kanpo, erakundeetatik eta banako moduan, barne-prestakuntza eta abar

3. Nork ikasten dute?

3.1. Ikasten dutenak

Ikasten duten pertsonen profila: 65 urte baino gutxiagokoak, goi mailako ikasketak dituztenak eta ordaindutako enplegua dutenak

Azken urteetan, ez da batere aldatu bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartzen dutela dioten Gipuzkoako biztanleria helduko taldearen profila. Ildo horretatik, 2017an:

- Gizonen parte hartzeak (% 52,9) emakumeen parte-hartzea (% 47,1) gainditu du zertxobait; hala ere, genero-arrailek behera egin du azken urtean (5,8 puntuko aldea 2017an eta 8,4 puntukoa 2016an).
- Ikasten duten pertsona gehienek 65 urte baino gutxiago dute (% 95,4). Ildo horretatik, ikasten duten pertsonen % 21ek 25 eta 34 urte artean du; heren batek baino zertxobait gehiagok 35 eta 44 urte artean du (% 34,3) eta hamarretik lau 45 eta 64 urte artean dago (% 40,1). Gainerako % 4,6k 65 urte baino gehiago du.
- Dagoeneko aipatu den moduan, pertsonen lortutako gehieneko ikasketa maila oso garrantzitsua da bizitza osoko ikaskuntzarekin jarraitzeko: ikasten duten pertsonen % 46,5ek goi mailako ikasketak ditu, % 38,6k bigarren mailako ikasketak ditu eta % 14,9k lehen mailako ikasketak ditu.
- Azkenik, ikasi duten pertsonen hiru laurdenek baino gehiagok ordaindutako enplegua du eta % 12,8 langabezian dago. Horrela, bistakoa da ikaskuntzak lan-merkatuarekin, pertsonen posizioarekin eta prestakuntza jarraituarekin lotuta duen garrantzia.

3. taula Ikaskuntza-jarduerak egin dituen biztanleriaren ezaugarriak

%

	2016	2017
Sexua		
Gizonak	54,2	52,9
Emakumeak	45,8	47,1
Adina		
25-34 urte	25,1	21,0
35-44 urte	35,6	34,3
45-64 urte	35,6	40,1
65 urte eta gehiago	3,6	4,6
Ikasketa maila		
Lehen mailakoak	7,5	14,9
Bigarren mailakoak	37,7	38,6
Goi mailakoak	54,8	46,5
Lan merkatuarekin harremana		
Enpleguarekin	78,7	77,5
Langabezian	13,2	12,8
Erretiratua	6,3	6,7
Lan merkatuan barneratu gabe	1,8	3,0
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

3.2. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak

Ikasten ez duten pertsonen profila: adineko pertsonak, unibertsitateko ikasketak ez dituztenak eta ordaindutako lan-merkatura txertatu gabekoak

Bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonen profila honako hau da:

- Ikasten ez duten emakumeen ehunekoa gizonena baino zertxobait altuagoa da, baina ezin da esan alde adierazgarria denik (% 51,4, % 48,6ren aurrean).
- Ikaskuntza-jardueretako parte-hartze gabezia, neurri handi batean, 45 urte baino gehiagoko pertsonari dagokie: ikasten ez duten pertsonen % 44,7k 45 eta 64 urte artean dituzte, eta % 23,6k 65 urte eta gehiago dituzte.
- Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da Gipuzkoako biztanleria helduaren zati garrantzitsu batentzat, lortutako ikasketa maila adinarekin guztiz bat datorrela. Hori dela eta, ikasten ez duten pertsonen % 78,1 lehen mailako ikasketak (% 35,3) edo bigarren mailakoak (% 42,8) ez dituzten pertsonak izan ohi dira.
- Azkenik, egoera lan-jarduera egitearekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da ezaugarri hori duen taldearen % 52,4k ordaindutako enplegu edo lanbide bat duela, % 10,4 langabezia-egoeran dagoela, % 27,1 erretiroa hartutako pertsonak direla eta % 10,0 ez dela ordaindutako lan merkatuan txertatu.

4. taula Ikasten duen eta ikasten ez duen biztanleriaren ezaugarriak

%

	Ikasten duten pertsonak	Ikasten ez duten pertsonak
Sexua		
Gizonak	52,9	48,6
Emakumeak	47,1	51,4
Adina		
25-34 urte	21,0	13,6
35-44 urte	34,3	18,2
45-64 urte	40,1	44,7
65 urte eta gehiago	4,6	23,6
Ikasketa maila		
Lehen mailakoak	14,9	35,3
Bigarren mailakoak	38,6	42,8
Goi mailakoak	46,5	21,9
Lan merkatuarekin harremana		
Enpleguarekin	77,5	52,4
Langabezian	12,8	10,4
Erretiratua	6,7	27,1
Lan merkatuan barneratu gabe	3,0	10,0
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

3.3. Zergatik ez dute ikasten?

Familia-erantzukizunak daude Gipuzkoako biztanleria helduaren artean ez ikasteko oztopo nagusien rankingeko buruan

Gipuzkoako biztanleria helduak ikaskuntza-jarduerak ez lantzeko adierazitako oztopoen artean, familia-erantzukizunak daude arrazoi nagusien artean. Zehazki, pertsonen % 42,6k hala adierazi du ez ikasteko arrazoi gisa, eta 2016 eta 2017 artean, hori da igo egin dela dirudien arrazoietakoa bat (+8,9 pp).

Bigarrenez, ikaskuntzan parte hartzen ez duen biztanleriaren heren batek adierazten du motibazio-falta dela mota horretako jardueraren bat ez lantzeko arrazoia (% 31,7). Adierazitako hirugarren oztopoa prestakuntza-jarduera laneko ordutegiarekin bat ez etortzea da (% 27,4).

Aintzat hartutako gainerako arrazoiak neurri txikiagoan aipatzen dira: prestakuntza beharrezkoa ez dela aintzat hartzea egungo ezagutzak nahikoak (% 17,7) direlako, zaharregia dela uste duelako (% 12,3) edo kostuarengatik (% 8,8).

Argudio horiek proportzio berberean aipatu dira aintzat hartutako bi urteetan; horrela, lehen hirurak dira (familia-erantzukizunak, motibazio-gabezia eta ordutegi-arazoa) ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea mugatzen dutenak.

5. taula Azken 12 hilabeteetan ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez izanaren arrazoiak

azken urtean zehar ikasi ez duten 25 eta 74 pertsonen %

	2016	2017
Familiako ardurek eragozten didate	33,7	42,6
Ez dut motibaziorik	35,9	31,7
Prestakuntza ez da laneko nire ordutegiarekin bateragarria	26,7	27,4
Ez dut horretarako adinik, zaharra naizela uste	19,7	12,3
Ez ditudala behar uste sut, nire ezagutzak nahikoak dira	11,8	17,7
Kostua handia da, ezin dut ordaindu	16,1	8,8

Erantzun anitza.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreekako Departamentua.

Sexuen araberako alde adierazgarriak: familia-erantzukizunak dira emakumeek adierazitako arrazoi nagusia eta motibazio-gabezia gizonezkoek adierazitakoa

Ikaskuntza-jardueretan ez parte hartzeko lurraldeko gizonak eta emakumeek adierazitako arrazoiaren artean dauden aldeak adierazgarriak dira: ikasten ez duten emakumeen % 58,4k, arrazoi nagusien artean, familiako erantzukizunak adierazi ditu, eta gizonezkoen % 25,8k adierazi du hori. Ildo horretatik, genero-arraila oso garrantzitsua da (32,6 puntuko aldea) eta proiektu honen hasieratik mantentzen da (2008).

Ikaskuntza-jardueretan parte ez hartzeko gizonak adierazitako arrazoi nagusia motibazio-falta da (% 33,1); hori da emakumeek aipatzen duten bigarren arrazoi nagusia (% 30,4); hala ere, aurrenekoarekiko alde handiarekin (28 puntuko aldea).

Gizonak adierazitako bigarren oztopoa –eta emakumeen adierazitako hirugarrena– prestakuntza-jarduera laneko ordutegiarekin bateratu ezina da (% 26,7 eta % 28,0).

Bestalde, bai gizonak, bai emakumeek neurri txikiagoan aipatu dituzte adinik ez izatearekin edo nagusi sentitzearekin, garestia izan eta ezin izatearekin edo nahikoa ezagutza dutelako ikastea beharrezkoa ez izatearekin lotutako oztopoak.

6. taula Ikaskuntzan sexuaren arabera ez parte hartzeko arrazoiak, 2017

azken urtean zehar ikasi ez duten 25 eta 74 pertsonen %

	Gizonak	Emakumeak
Familiako ardurek eragozten didate	33,1	30,4
Ez dut motibaziorik	26,7	28,0
Prestakuntza ez da laneko nire ordutegiarekin bateragarria	25,8	58,4
Ez dut horretarako adinik, zaharra naizela uste	14,8	10,0
Ez ditudala behar uste sut, nire ezagutzak nahikoak dira	20,3	15,2
Kostua handia da, ezin dut ordaindu	8,9	8,8

Erantzun anitza.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreekako Departamentua.

Familia-erantzukizunak dira oraindik ere oztopo nagusia, adina edozein izanda ere

Pertsonen ikaskuntzan parte-hartzeari jarritako oztopoak biltzen ditu atxikitako koadroak, adin taldeen arabera. Zehazki:

- Familia-erantzukizunak oso oztopo garrantzitsuak dira aintzat hartutako lau adin taldeetako pertsonentzat; izan ere, adin talde bakoitzeko hiru pertsonatatik batek behintzat adierazi du.
- Hala eta guztiz ere, 25 eta 44 urte arteko pertsonentzat, aipatutakoa oztopo garrantzitsua izan arren, prestakuntzaren eta laneko ordutegiaren bateragarritasun-gabezia da oztopo nagusia (% 49,2 eta % 53,8).
- Eta bestalde, 45 urte baino gehiagoko pertsonentzat, motibazio-gabeziaren garrantziak gora egiten du ikaskuntzari traba egiten dion garrantzizko argudio gisa (% 38 eta % 42,1).

Hau da, pertsona guztientzat, badirudi ordutegiaren eta erantzukizunen bateragarritasuna ikasteko eragozpena dela, bizitza-ibilbideko garrantzi berezituarekin. Nabarmendu beharrekoa: motibazio-falta oztopo garrantzitsua da 45-64 urte arteko pertsonen artean (% 38), etengabeko prestakuntza behar duen laneko bizitzari aurre egin behar diotenen artean.

7. taula Ikaskuntzan ez parte hartzeko arrazoiak, adin taldearen arabera, 2017

% población de 25 a 74 años que no se ha formado en el último año

	Guztira	Adin taldeak			
		25-34	35-44	45-64	65 eta +
Familiako ardurek eragozten didate	42,6	35,4	48,4	42,6	42,1
Ez dut motibaziorik	31,7	12,3	17,6	38,0	42,1
Prestakuntza ez da laneko nire ordutegiarekin bateragarria	27,4	49,2	53,8	23,1	1,8
Ez dut horretarako adinik, zaharra naizela uste	12,3	0,0	0,0	9,7	34,2
Ez ditudala behar uste sut, nire ezagutzak nahikoak dira	17,7	10,8	7,7	20,4	24,6
Kostua handia da, ezin dut ordaindu	8,8	13,8	8,8	10,6	2,6

Erantzun anitza.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Metodologia: ikaskuntza-definizioen aplikazioa, neurketaren jarraikortasuna eta nazioarteko alderaketa bermatzen dituztenak

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikaskuntza-jardueren ezagutza urteko inkesta bat egitean oinarritzen da. Definizioak³ eta edukiak mantentzeak neurriaren jarraikortasuna bermatzen du, eta batez ere, nazioarteko alderagarritasuna. Zehazki, ikerketa-lerro honetan ikaskuntzako hiru kategoria handi hartzen dira kontuan:

- Ikaskuntza formala: heziketa- eta prestakuntza-zentroetan garatzen da, eta diplomak eta egiaztatutako prestakuntza lortzen dira.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean gauzatzen da, baina ez da titulu ofizialik eskuratzen. Ikaskuntza mota hori erakundeetan eta erakundeetatik kanpo eskura daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, marrazketako eskolak...).
- Ikaskuntza informala: ikasteko helburuarekin gauzatutako jarduera gisa definitzen da, baina nor bere kabuz egiten du, erakundeetara jo gabe. Ikaskuntza ez-formalaren kasuan baino antolaketa eta egituraketa gutxiagorekin eskuratzen dira ezagutzak; esaterako, familian, lanean edo norberaren eguneroko bizitzan gertatzen diren ikaskuntza-jarduerak dira.

Bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartze tasa⁴ pertsonak ikaskuntza formaleko eta ez formaleko jardueretan parte hartzetik abiatuta osatzen da.

³ Eurostaten metodologia.

⁴ Ikaskuntza informalak osatzen du ikaskuntzaren ikuspegi orokorra, baina ez dugu sartu kontaktetan, oso subjektiboa (norbere kabuz ikasten dena) eta herrialde batetik bestera oso irregularra baita. Iturria: Eurostat.

Titulua:	Pertsonen parte hartzea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan Gipuzkoan 51. dokumentua, 2017ko martxoa
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreekako Departamentua.Gipuzkoako Foru Aldundia
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa-lana:	Datakey, S.A.
Ohar teknikoa	Laginareen diseinuaren eguneratzea; aldagai demografikoen, enpleguaren eta ikasketa mailaren doiketa. Lotura urtea 2016 eta aurreko urteetakoekin zuzenean alderagarriak ez diren emaitzak.